

DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO PRESTAKUNTZA KONTRATUETARAKO LAGUNTZAK 2017 (FPI-MINECO)

Deialdiaren ezaugarriak:

Deialdia atara da doktorego tesia egiteko lau urterako 1.082 laguntza banatzeko (horietatik hamar, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat). **Tesiek lotura izan behar dute Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren (MINECO) «Jakintzaren sorkuntza» eta «Gizartearen erronkak» 2016ko azpiprograma, INIA edo "Severo Ochoa"/"María de Maeztu" deialdietan onartutako proiekturen batekin.**

Aukeratutako proiektuen zerrenda [hemen](#) ikus daiteke.

Eskatzaileen eskakizunak:

2017/18 ikasturtean doktorego programa batean matrikulatuta edo onartua egotea.

Laguntzen ezaugarriak:

Laguntzen helburua da doktorego aurreko lan kontratueterako diru laguntzak ematea doktoregaien prestakuntza sustatzeko. Kontratuok gehienez lau urterako dira, eta soldata urtean 16.422 euro gordinizango da.

Laguntzak bi kontzeptu ditu:

- Kontratuen finantzazioa
- I+G zentroetan egonaldiak egitearen ondorioz izandako gastuak eta doktoretza irakaskuntzan matrikulatzearenak.

Eskariak aurkezteko epea:

2017ko urriaren 3tik 18ra, biak barne. Azken eguneko 15.00etan amaituko da.

Eskariak Internetez aurkeztu behar dira, aplikazio hau erabilia:

<https://sede.micinn.gob.es/ayudaspredoctorales/>

Behin eskaria eginda, **sinatu eta erregistratu egin behar da**, behar bezala aurkeztutzat jo dadin.

UPV/EHUn egin beharreko tramitea:

Eskatzaile bakoitzak egin behar du eskaria, deialdiaren lehen fase honetan ez baita beharrezkoa Ikerketaren arloko errektoreordearen baimena.

Harremanetarako:

Bidali galderak MINECOra zuzenean: predoctoral@mineco.es.

Informazio gehiago:

Honako [esteka](#) honetan ohiko galderen zerrenda bat eguneratu dago, alde administratiboez, informatikoez eta tramitazio kontuez.